

# Ahotsa

Ordiziako ezker abertzalearen aldizkaria

## Zutik ORDIZIA



- /// Zutitu Ordiziako soberanistak ere!*
- /// Ni democracia ni verdadera participación ciudadana en el Ayuntamiento*
- /// Oiangu: Udalak lehengo lepotik burua*
- /// Atzerapausoak Udalean euskararen normalkuntzan*
- /// Ordizia Lantzen, un 6% de todo lo que se mueve en San Juan*
- /// Jaietan ere, presoak geure zainetan*

# Zutik Euskal Herria, atzo, gaur eta bihar!

*Joxe Manuel Pagoagak, "Peixotok", honako pasarte hau kontatzen du Eustakio Mendizabal "Txikiari" buruz ari delarik:*

*"Egun batean bere etxera joan eta galdetu nion ea zer egin behar genuen. Eta Txikiak erantzun: Orain, kanpaina hau eta gero beste hura. Eta nik: eta gero?."*

*Gero halakoa eta bestelakoa. Eta gero? Gero segi. Eta halako batean: eta gero? Eta berak, "Borrokan hil". Horrela, ahotsik mudatu gabe. Eustakio konturatzen zen herri bat ginela, askatu egin behar genuela eta... borrokan hil".*



sko dira borrokan hil direnak. Txikia bezala, dena emanda. Baina, DENEK BIZIRIK DIRAUTE gure borrokan. Borroka bidezkoa, baina gogorra. Gogorra, baina ederra. Izan ere, borrokaren ondorioz dugu herri honetan nazio kontzientzia eta izaera, Espainian zein Frantzian asimilatuak ez izateko indarra, independenteak izateko borrokatzeko grina, arlo ezberdinetan ekinez herri bezala aurrera egiteko borondate irmoa... DENEK ESKER DIRAUI HERRI HONEK BIZIRIK.

Gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoera horrek aukera ematen digu fase politiko berri

batean sartzeko. Fase horren bereizgarri nagusienak ezin du izan estatuen errepresioari erantzute hutsa. Herri honen urtetako borrokak kapital oso baliotsua ekarri digu, ezin duguna alperrik galtzen utzi. Orain artean egindako lan guztia bildu behar dugu herri oso baten estrategia bakarrean. Uzta biltzeko eta sendo eraikitzeko garaia da. Horretarako indarrak batu behar ditugu eta arloz arlo (instituzionalean, sektorialetan, lan munduan, hezkuntzan, euskalgintzan, lurraren zaintza eta antolamenduan...) estrategia bat adostu, eta aurrera eraman herri bezala oinarri sendoak eraikitzeko.

Horixe da ezker abertzaleak

Zutik Euskal Herria izeneko hausnarketan transmititzen diona ezker abertzale osoari ez ezik, eragile eta herritar soberanista guztiei ere. Herri bakar baten moduan gauzatu behar dugu gure ekintza politikoa. Ekin egin behar dugu irabazteko. Eta irabazteko tresnak egokitu. Eraiki. Ere muak irabazi. Gehiengoak lortu. Egunetik egunera urratsak eman marko berri bat eraikitzeko. Soberanistak, independentistak, herri bezala estrategia bakarrean borrokatu. Nazio mailan bezalaxe, geure lantokietan, ikastetxetan, kalean, udaletan... Ordizian ere. Horretarako, bakar batzuek dena eman behar ez dezaten, denok eman behar dugu zerbait.

# Zutik Euskal Herria

**E**l documento Zutik Euskal Herria clarifica la fase política que vivimos y la estrategia de la izquierda abertzale. Por otra parte, el Acuerdo Político firmado con EA, y abierto a otras fuerzas soberanistas, marca la línea del trabajo en común con intención de llevar a Euskal Herria a otro escenario político. Todo ello es consecuencia del convencimiento de que vivimos un momento histórico en el que debemos de dar pasos para rentabilizar todo el capital político y social conseguido tras largos años de lucha. Y cuando hablamos de rentabilizar, estamos hablando de ganar. Debemos

ganar espacios de lucha, espacios de poder. Debemos ganar las calles, las instituciones, los centros de trabajo... Debemos ganar el cambio político y social sin limitarnos a contestar a las políticas represivas de los estados. Debemos luchar más que con talante reactivo, con políticas proactivas que posibiliten ir abriendo desde hoy mismo el futuro de Euskal Herria. Con iniciativas políticas que aúnen fuerzas y ciudadanos-ciudadanas soberanistas en una estrategia común para Euskal Herria, tanto a nivel de política general, como en políticas sectoriales y en nuestros pueblos. Ese será el

camino a seguir también en Ordizia, durante los próximos meses.

- La actual fase política debe de ser la fase del cambio para la consecución de un marco democrático.
- El proceso democrático es la palanca del cambio de ciclo.
- Los soberanistas debemos dotarnos de eficaces estrategias, instrumentos y medios para avanzar.
- El Pueblo Vasco y la ciudadanía vasca son los fundamentos del proceso democrático.
- Los antecedentes políticos de nuestro pueblo confieren motivos para la confianza.



# Democracia y participación en el Ayuntamiento de Ordizia

**E**l Ayuntamiento ni es democrático, ni impulsa la participación. Aunque exista una concejalía de “participación ciudadana”, su función es justificar las decisiones que toman los partidos del equipo de gobierno.

No es democrático, no sólo porque se priva a la fuerza mayoritaria de sus derechos políticos (la izquierda abertzale), sino porque en la única comisión que trata de todos los temas del Ayuntamiento nunca se ha tenido en cuenta la opinión de la oposición.

En toda la legislatura las decisiones más importantes nunca se han debatido y decidido en esa supercomisión, sino en la Junta de Gobierno. Como ejemplo de ello dos proyectos importantes en las inversiones: la cubierta del frontón pequeño y la urbanización de los terrenos de cesión de CAF (con un coste de 460.000 €). Los miembros de la comisión nos hemos tenido que enterar por la revista “Ordizia Gaur”, pues en ningún momento se habían tratado en dicha comisión hurtando a la oposición la posibilidad de plantear otros puntos de vista. Todavía hoy no sabemos que se quiere hacer, y lo único que sabemos es que se ubicará un Skate



park (¿es una prioridad dicha inversión?), sin saber el coste del mismo, y descartando la ubicación de una zona recreativa que podría ser una alternativa a la falta de espacios públicos acondicionados en Urdaneta/Eskarabilla, tal como había propuesto la izquierda abertzale.

Durante toda la legislatura ha sido una constante la queja de la oposición ante la falta de información y de debate en, por ejemplo, la Escuela de Idiomas, Oiangu, el plan parcial de Agerre... Y no se fomenta la participación no sólo porque los plenos se celebran a las 8 de la mañana, sino porque cualquier propuesta que plantea la oposi-

ción es reiteradamente rechazada, aplicando una política de rodillo por el PNV-PSOE.

Si no se concibe una democracia sin oposición y si queremos fomentar una verdadera participación, que posibilite el debate y la participación pública en las tomas de decisiones, deberá cambiar radicalmente la política del Ayuntamiento. Por ejemplo, dándole a las comisiones un carácter más participativo y decisorio, y hasta la propia revista municipal, pues como revista pública pagada por todos los ordizarras, deberían tener cabida los planteamientos de la oposición y no servir únicamente de propaganda oficial del PNV-PSOE.

## **Ezin dugu ahaztu, eskubide politikoek zapalduta jarraitzen dute**

**H** auteskundeetan ezker abertzalea bozkatuena izan arren (896 boto, PNVk 775) hainbat komisiotatik baztertuta izan da, PNV-PSOEek informazioa ezkutatu dute, oposizioari inolako errespeturik

ez diete agertu... Udal Gobernu ilegítimoak kalte handia egin dio demokraziari eta bizikidetzari. Zuzentzeko aukerak izan arren (batzordeak osatzera-koan, egitasmoak konpartitzerakoan...), PSOE eta PNVk inposizioaren bidetik jarraitzen dute. Kurioso da Ordizian bi alderdi hauek zein adostasun maila duten politika guztietan, eta zein eroso sentitzen diren inposizioaren bidean, gutxiengoa izan arren.

## **Oianguren kasuan, ez dute ezer ikasi, ez dute ezer zuzendu**

**H** ara hainbat oker nabarmen: Oianguko Golf proiektua herritarren beharrak kontuan hartu gabe prestatu zen; ingurumen aldetik ez zen jasangarria; sozialki ere ez zen jasangarria eta pribatizatzailea zen; akats larriak egin ziren (baimenak emateko garaian, posteetan...), ekonomikoki ez zen bideragarria... Hara zenbait pertsonai ez dutenak ezer ikusi eta ikasi nahi: PNV eta PSOE, eta haien buru Santamaria eta Dubreuil.

Aún siendo evidente el fracaso del proyecto de Oiangu (gracias en gran parte a la oposición de los ordiziaras al mismo) y a pesar de que los ciudadanos y asociaciones locales reclaman participar en el diseño de un nuevo proyecto que de respuesta a las necesidades de todos los ordiziaras y garantice su uso



publico y el respeto al medio ambiente, el PNV y el PSOE continúan por el camino de la imposición. Han decidido derribar los antiguos postes tóxicos saltándose de nuevo el protocolo para tales productos y colocar unos nuevos de cemento. La cabezonería de nuestros gobernantes nos costará de nuevo más de 125.000 euros. Siguen sin saber qué hacer, pero sin corregir errores. ¿Donde están ahora los responsables de Deportes de Diputación, los de Turismo y Goieki, los de la empresa, los concejales y alcaldes que impulsaron-impulsan semejante chapuza?

## **Urdaneta-Eskarabilla auzokoan salaketa**

**G** aur egun Ordizian parke egokiturik ez duen auzo bakarra da. Hainbat bizilagunek eskatu dute gutxienik espaziotxo hau egokitzeko. Orain eskatzen dute CAFeko terrenoetako egitasmorako auzokoen iritzia kontuan hartzea.



## Ordizian euskal hiztunen eskubideak urratzen dira, eta Udalak berak ez du betetzen Euskararen Ordenantza

**L**ehen ere salatu izan dugu agintaldi honetan atzera pauso nabarmenak ematen ari direla Ordizian euskararen berreskurapen eta normalkuntzan. Udal organoetan, udal argitalpenetan (ikus Ordizia Gaur), Udalak antolatutako nahiz lagundutako ekimenetan... euskararen presentzia gutxiagotzen, eta hainbat kasutan desagertzen ari da.

Udalak aho batez 2000ko urrian onartutako euskararen ordenantza bera ere ez du betetzen Udalak. Bagenekien zein den PSOEn hizkuntza politika. Orain badakigu euskara ez dela inondik inora PNVren lehentasuna.



### Udalaren jardunetan egindako urraketak

**F**eria de Ordizia web gunea erdara hutsean, udal langileentzat hainbat ikastaro erdara hutsean (hitzaldiak, materialak...), Euskal Jaietan gastronomia lehiaketako kartela gaztelerez, Azoka ekologikoan postu ia denak gaztelerez, obretako hainbat kartel gaztelera hutsean, argitalpenetan

ez da ordenantza betetzen (euskarari lehentasuna eman beharra, bai espazioan, bai neurrian), gizarte eta boluntarioritza astean, Barrenako ardo dastaketan, martxoaren 8ko ekitaldietan, DYaren sorospen ikastaroan, Plazan ekainean egindako spinning kirol ekitaldian...



**H**erritarrok ezin dugu urraketa hauen aurrean isilik geratu. Penagarria da gaur egun oraindik euskaldunok Ordizian geure eskubideak urrututa izatea, haserre eta aspertuta ere bagaude. Baina ezin dugu etsi. Ordiziarrok animatu nahi ditugu halako urraketak sala ditzaten, Udaleko ezker abertzaleko ordezkarietara jakinaraziz, edota Udalean bertan salaketa idatziz eginez. Euskararen berreskurapen eta normalkuntza adi eta aktibo izatera animatzen zaituztegu.

## San Juanen garapenaren inguruko zalantzak, eta ziurtasunak

**D**uela hainbat urte Udala San Juanen garapena eta etxebizitzaren eraikuntza aztertzen hasi zenean, ezker abertzaleak hainbat kezka agertu zituen: hura ote zen herria zabaltzeko garaian lehenetsuzko esparrua; zer gertatzen ote zen San Bartolomerekin eta jasaten ari zen degenerazio larriarekin; nola garatuko ote zen San Juan eta beharrezkoa ote zen haren garapenaren ardura (eta negozioa) Ordizia Lantzen ematea; garapen orekatu planteatzen ote zen bolumena eta tipologia egokiarekin...

Zalantza horietako asko aztertu gabe Udalak aurrera jo zuen, baina informazio ahalik eta osoena, etorkizuneko datuak, aukerak eta arriskuak, ikuspegi globala... eduki gabe. Eta oraindik ere horrela jarraitzen du. Ez dago garbi nork eta nola garatuko duen San Juan, ez daude garbi faseak, baina urratsak ematen ari dira. Urrats itsuak, irizpide politiko eta publiko garbirik gabe, eta ardura handiegia ari da uzten Ordizia Lantzen erakundeak.

Ezker abertzaleak zalantzak ditu egitasmoa aurrera eramateko moduan. Erraza eta populista da egitasmoa saltzea esanez babes ofizialeko hainbeste etxebizitza egingo direla. Baina kontua da informazio osoa eman behar dela. Eta gu kezkatuta gaude, alde batetik aurrekari larriak badi-tugulako. Gogoratu Apellanizen eremuan (han ere

babes ofizialeko etxeak eta, nola ez, propaganda) Udalak zein kudeaketa negargarria egin zuen, eta zer galerak izan genituen (Udal Biltegiarik gabe jarraitzen dugu, eta urtean milaka euro gastatzen alokairuetan). Beste alde batetik, garbi dugu hemen ahalik eta azkarren, prezipitatuta bada ere, mugimenduak egon daitezen interes handiak dituela Ordizia Lantzenek berak. Izan ere, egiten den edozein operazioaren (lur erosketa, kontratazio, eraikuntza...) %6a kobratzen du.

### ***¿A cuanto asciende el 6% de todo el proyecto de San Juan?***

Sin entrar ahora a valorar la idoneidad o no de las operaciones que está realizando el Ayuntamiento para desarrollar San Juan, en estos momentos debemos mostrar nuestra preocupación por el hecho de que el Ayuntamiento se esté comprometiendo (y esté gastando) sin tener la suficiente información, visión y criterio para ello, tal vez empujado por Ordizia Lantzen, que evidentemente es quien mayor interés pueda tener, ya que cobra un 6% de cualquier operación que se realice (sea gestión, compra contratatación...). Así, en una operación reciente de compra de 2.755.137 euros, por la simple gestión se han embolsado 165.000 euros.

## Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari

**U**DALBILTZA, Euskal Herriko Udal eta Udal hautetsien Biltzarra 1999ko irailaren 18an sortu zen, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako 1.800 hautetsik Bilboko Euskalduna Jauregian bildurik. Helburuok zituen: Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzea eta nazio eraikuntza bultzatzea, Euskal Herria politikoki egituratzea, herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzea, nazioartean Euskal Herria nazioa dela adieraztea...

Ordutik, UDALBILTZAK egitasmo ugari gauzatzen joan da, bes-

teak beste, Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren sortu Zuberota garatzeko, Euskal Herrian Bake-rako Bideak Garatzeko Engaia-mendua eta Euskal Herriaren Eskubideen Karta lantzea, Herri- en Eskubideen Aldeko Nazioarteko Konferentzia antolatzea, Euskal Komunikabideak sustatzea, kultura eta hezkuntza-ko eragileekin elkarlanean egitasmoak gauzatzea (tartean euskal curriculum), Nazio Eztat- dagune bultzatzea...

Egindako lana delitua ez izan arren, 2.003ko apirilaren

29an Espainiako Poliziak Udalbiltzaren egoitzak miatu eta pre- zintatu zituen, eta 8 hautetsi eta langile atxilotu zituen.

Orain, UDALBILTZAREN aur- kaka epaiketa hastear dago, eta instituzio nazional bakarra ilega- lizatzeaz gain, 22 pertsona pro- zesatzen dira “erakunde terroris- tako kide” izatearen akusaziope- an (tartean hiru goierritar), nahiz eta aurkako frogarik ez izan, hau- tetsi lana baino ez egin. 22 hau- tetsi horientzat 10 urtetik 25 urte bitarteko kartzela zigorra eskatzen dute.



Ordiziako Udalak ekaineko osoko Bilkuran PNV, EA, Aralar eta EBren botokoekin (PSOE aurka) babesa agertu zien Udalbiltzari eta auziperatuei. Argazkian Ezker Abertzaleko, EAKo, PNVko eta Aralarreko kide eta hautetsiak Ordiziako plazan egindako elkarretaratzean.





## AHTren aurkako borroka Goierrin

**A**HTran obrak Goierrin ditugu. Zuhaitzak bota, lurra zulatu, urak kutsatu, herriak militarizatu, herritarren borondatea zapaldu, krisian den kapitalismoa berpizten saiatu, langileriak sortutako aberastasuna gutxi batzuen mesedetan jarri, dirutza itzelak xahutu, gastu sozialak murriztu... Hori guztia da AHT.

Egun hauetan, ordea, aukera izan dugu AHTren aurkako borroka ere Goierrin bizi izateko. Lurrarekiko eta bestelako gizarte eredu baten aldeko konpromisoa, eskuzabaltasuna borrokan, irudimena, informazioa eta ekintza zuzena, babes soziala... Hori guztia da AHTren aurkako borroka.

Egunotan lau ekintzaile Itsasondoko meategietako tuneletan sartu dira obretako leherketak eta lanak, galarazteko, eta ingeniari baten informea aurkeztu dute AHTren tunelak Itsasondo-Ordizia tartean dituen arriskuak azalduz. Eta herritarrok aukera izan dugu kontzentrazio eta manifestazioetan ekintzaileei babesa azaldu eta AHTren aurka agertzeko. Badiarelako hainbat modu AHTren aurka eta beste gizarte eredu baten alde borroka egiteko. Lotu gaitezten borrokarri. AHT geldituko dugu.



**C**ada habitante de la Comunidad Autónoma del País Vasco mayor de edad debe pagar 4.859 euros para el TAV (6.341 millones en total). Pero el TAV no es una inversión, es un gasto inútil y nocivo. Porque no es la solución al crecimiento del transporte; porque el TAV es la infraestructura más antiecológica

proyectada en Euskadi después de Lemoiz; porque es una inversión que no se rentabiliza ni en términos económicos ni sociales; porque en tiempos de crisis no supone un proyecto para superar el actual modelo económico y social, insostenible, injusto y enfermo; porque priorizarlo supone reducir el gasto social...

## Euskal preso Politikoen kolektiboa borrokaldian beraien eskubideen jabe

**E**spainiar eta frantziar gobernuen errepresio estrategiaren bidez muturrera eraman dute espetxeetako egoera, eta euskal preso politikoak jazarpen izugarria jasaten ari dira. Sakabanaketa, gaixotasun larri eta sendaezinak dituztenak preso eta tratamendu egokirik gabe mantendu (esaterako minbizia eta eskizofrenia dutenak), kondenak luzatu... Praktikan bizi arteko espetxe zigorra aplikatzen diete, edota heriotza zigorraren muga eramaten dituzte.

Senideen aurkako jazarpena ere areagotzen ari dira. Milaka kilometro egitera behartu ondoren, miaketa zorrotzak egin nahi izaten dizkiete, eta ukatuz gero, senide asko bisitarik gabe geratzen da.

Egoera jasan ezin honen aurrean, EPPK urtarrietik borrokaldian da beraien eskubideak aldarrikatzuz: Espainiak eta Frantziak garatzen duten espetxe politika zapaltzailea bertan behera uztea, Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea, kondena beteta dutenak kaleratzea, kondizionalaren epeetan direnak kaleratzea, gaixo larri guztiak kalera- tzea, bakarrik direnak beste kideekin elkartu...

Kartzeletako borrokekin batera (komunikazio grebak, propaganda ekimenak, itxialdiak, baraualdiak...) Goierrin ere hainbat elkartasun ekimen egin da, esaterako, Beasainen baraualdia, kotxe karabanak...

Protesta ekintzak urte osoan txandaka ari dira burutzen, Ordiziako presoek honako data hauetan: Mikel Otegi eta Rufino Arriagak ekainean egin dute; Ekain eta Idoia Mendizabal eta Mikel Kortak maiatzean egin dute eta beste presoek datozen hilabeteetan burutuko dituzte.



### **Estradiziorik ez! Amnistia osoa!**

Idoia Mendizabal Ordiziako preso politikoak maiatzaren 27an estraditatu dute estatu Espainolera 4 euroagindu leporatuta, eta Soto del Real espetxean dago epaiketaren zain. Esan dutenez, 6 hilabeteko epea igaroko ditu espainolen eskuetan, baina luzatze-ko arriskua dago.

Idoia Mendizabal 1998ko urtarrilaren 31n atxilotu zuten ertzainek, Idiazabalen ertzain baten etxea koktelekin eraso izana leporatuz. Orduan tratatu txarrak jasan zituela salatu zuen. Bost hilabete espetxean igaro ondoren, epaiketaren aitean eta ikusirik ze etorkizun iluna zetorkion 2001eko urtarrilean ihes egin zuen. 2005eko urriaren 3an Frantzian atxilotu zuten.

Honela, estatu frantsesean 12 euroagin- du onartu eta Fresnesen espetxeratu zuten epaiketaren zain. 5 urte igaro ondoren 2010eko martxoaren 9an epaitu eta 8 urte-ko kartzela zigorra ezarri diote Frantzian, 2012ra artekoa. Bitarte honetan, Estatu Espainolaren menpe dago...

## **Festetan ere, preso eta iheslariak bihotzean. Parte hartu eximen eta mobilizazioetan**



### **Festetan jar ezazu ikurriña zure balkoian**



### **Udal ilegítimo eta autoritate lapurren sokadantzarik ez!**

**P**SOE eta PPre alderdiern lege faxistak eraginda beste urte bat igaro dugu Ordizian demokraziarik gabe. Alkatea eta PNV-PSOE normaltasun itxurak egiten saiatzen diren arren, festetan ere ispilu aurrean jartzen ditugu beren izaera faxista gogora arazteko. Eta beraiek ere badakite ez direla legítimoak. Horregatik, udal ez demokratikoak osatu zirenetik Ordizian ez dugu izan festetan autoritateen soka dantzarik.

# Ordiziako Gazteek @ Txoznen Egitaraua

## Ostirala 16

19:00 Berri-uriki posada Gazteak

21:00 Berri-uriki Gazteak

(Berri-uriki Gazteak)

Berri-uriki: **Julen Agirre** (Berri-uriki) eta **Gerka Maiz** (Berri-uriki)

eta **Endika Igarbala** (Berri-uriki)

## Larunbata 17: VII. Gaste Eguna 2010

13:00 Txopinasa Gazteak,  
txopinasa Pedro Garcia mendizalea,  
Ondoren trikitetas.

14:30 Barri: Herriko txoznenak.

16:30 Joruk

17:30 Goleeri Punk Festibal (Goleeri)

**INDARRA** (Goleeri)

**KALAMIDAZ**

**BURUSOL** (Goleeri)

**KOSTOZIRKUTU** (Goleeri)

**HAWIN ALAUCH**

20:00 Manifestazioa:

**EUSKAL GAZTERIA EZ DAGO BALGAIN**

23:00 Kontzertus txoznenak:

**LAUROBA** (Berri-uriki)

**TXANDUO** (Berri-uriki)

**FIKUNE** (Berri-uriki)

## Ostirala 23

23:00 Kontzertus Txoznenak:

**LOS CALENAS** (Berri-uriki)

**ANGEL** (Berri-uriki)

**LAKET** (Berri-uriki)

## Larunbata 24: Maite Zaituztegu Eguna

12:00 Enkartzelada plaza

12:30 Txopinasa gazteak

Ondoren trikitetas.

14:30 Barri: Herriko txoznenak

Ondoren dantzaldia.

16:00 Barri: **EHUNZANGO** (Berri-uriki)

20:00 Manifestazioa: **EUSKAL PRESO**

**POLITIKOAK EUREN ERKUBIDEEN JARR**

23:00 Txoznenak: **DJ. TXO!** eta **DJ. OLANJUS**

## Igandea 25: Matutina

Mozortutuz herri dantza jarriko da

## Astelehena 26

21:00 Kontzertus Gazteak:

**LAS RODILLERAS** (Berri-uriki)

**LOS SANTOS** (Berri-uriki)

## Asteartea 27: Koadrila Eguna

20:00 Barri ezkerreko Gazteak

23:00 Dantzaldia Txoznenak: **Djak GIROTURIK**

